

Marie Curie

Marie Curie bizitza benetan emankorra izan zuen aparteko emakumea izan zen. Hemen duzu bere bizitzaren nondik norakoak laburtzen dituen biografia.

Poloniako Varsovia hirian, 1867. urteko azaroaren 7an, bere arreta, ardura eta, azken batean, bizitza osoan zehar ikerketa zientifikoan jardun zuen neska txiki bat jaio zen. Marie Sklodowska zuen izena, baina urteak geroago Marie Curie gisa ezagutu zuen mundu osoak.



Marie pozik bizi izan zen txikitan bere gurasoen eta lau ahizpa eta neben ondoan. Aita Fisikako irakaslea zuen eta ama, berriz, eskolako maistra.

Txiki-txikitatik gailendu zen Marie; izan ere, ohiz kanpoko adimena eta oroimen gaitasuna erakutsi zituen.

24 urte zituela, bizitzako ametsa bete zitzaion Marieri: Parisen Fisika ikastea lortu zuen. Parisko unibertsitatean irakasle ospetsuekin aritu zen ikasle eta, gainera, bertan

ezagutu zuen bere senar bilakatuko zen gizona, Pierre Curie, Fisikako katedraduna.

Elkarlanean, Pierre eta Marie Curie senar-emazteek artean ezezaguna zen substantzia kimiko bat aurkitu zuten: radioa. Aurkikuntza hori zela-eta, Fisikako Nobel saria jaso zuten 1903. urtean.

Hiru urte beranduago Pierre Curie hil egin zen eta 1911. urtean Kimikako Nobel saria jaso zuen berriz Mariek, erradioaktibitatearen fenomenoari buruzko ikerketa batzuegatik.

Lehen Mundu Gerran, Marie Curie gaixoak eta zaurituak zaintzen ibili zen, gudu-zelaian bertan, instalazio erradiologikoak zituen anbulantzia batean. Anbulantzia hura Mariek berak gidatzen zuen fronteko alde batetik bestera.

Marie Curie 1934. urtean hil zen leuzemiak jota. Seguruenik, elementu erradioaktiboekin egindako lanaren eraginez gaixotu zen eritasun horretaz.

Marie Curie Zientzietako Nobel Saria birritan jaso zuen lehen gizakia izan zen.



Aukeratu erantzun zuzena.

1 Zer azaltzen da testuan?

- A. Marie Curieri egun batean gertatutakoa.
- B. Marie Curiek bere egunerokoan idatzitakoa.
- C. Marie Curieren bizitzaren nondik norakoak.
- D. Marie Curieren iritzia zientziari buruz.

2 Non eta noiz jaio zen Marie Curie?

- A. Poloniatik kanpoko Varsovia hirian, 1876an.
- B. Varsovia hiriko Polonia auzoan, 1867an.
- C. Poloniako Varsovian, 1867an.
- D. Polonian 1876an, baina ez dakigu zein hiritan.

3 Bukatu esaldia. *Marie Curie txikitan...*

- A. ...triste bizi izan zen, alaba bakarra zelako.
- B. ...ikasle txarra izateagatik nabarmendu zen.
- C. ...gailendu zen, adimen eta oroimen ona zituelako.
- D. ...bere izeba-osabekin bizi izan zen.

4 Zertan aritu zen Marie Curie bere bizitzan zehar?

- A. Medikuntzan aritu zen.
- B. Eskolak ematen aritu zen.
- C. Ikerketa zientifikoak egiten aritu zen.
- D. Bere ahizpa-nebak zaintzen aritu zen.

5 Nola ezagutu zuten elkar Curie senar-emazteek?

- A. Nobel sarien banaketa-jaian ezagutu zuten elkar.
- B. Lehen Mundu Gerran, ospitale batean ezagutu zuten elkar.
- C. Parisko unibertsitatean, Marie Fisika ikasten ari zela.
- D. Biak ikasleak ziren garaitik ezagutzen zuten elkar.

- 6 Zer zela-eta jaso zuten Nobel saria Curie senar-emazteek?**
- A. Bigarren Mundu Gerran gaixoak eta zaurituak zaintzeagatik.
 - B. Erradioaktibitateari buruzko ikerketa batzuegatik.
 - C. Substantzia kimiko berri bat aurkitzeagatik.
 - D. Irakasle onak izateagatik.

- 7 Zertan ibili zen Marie Curie Lehen Mundu Gerran?**
- A. Ikerketak egiten jarraitu zuen.
 - B. Medikuntza ikasten aritu zen.
 - C. Gaixoak eta zaurituak zaintzen ibili zen.
 - D. Gidatzen ikasten aritu zen.

- 8 Zer zela-eta gaixotu zen leuzemiaz?**
- A. Guduan kutsatu zen horretaz.
 - B. Laborategian izan zuen istripu baten eraginez.
 - C. Bizitza osoan egindako lanaren eraginez.
 - D. Txikitan izandako gaixotasun baten eraginez.

- 9 Zer testu mota da irakurri duzuna?**
- A. Albiste da.
 - B. Egunerokoa da.
 - C. Biografia da.
 - D. Ipuina da.

- 10 Biografietan nola azaltzen dira gertakariak?**
- A. Pertsonaren bizitzaren bukaeratik hasierara.
 - B. Guk nahi dugun ordenan.
 - C. Pertsonaren jaioztatik heriotzara.
 - D. Lehengo gauza garrantzitsuak eta gero, gainerakoak.